

TORTURA SEXISTARIK EZ!

Ukapena eta desitxuraketa. Gertatutakoa ukatzea eta salaketak desiutxuratzea izan da, Frantziako eta Espainiako Estatuak urteetan erabili duten estrategia. Baina, badakigu arrazoi politikoak medio jazartuak izan diren emakumeen* aurka sistematikoki aplikatu izan dela tortura. Eta torturaren erabilera ere estrategia bat izan da, izuaren bidez kontrol soziala lortzekoa, besteak beste.

Euskal Herriko Bilgune Feministatik, gure elkartasun eta babes osoa adierazten diogu Iratxe Sorzabal Diaz. Izan ere, orain edukitzen ari den epaiketetan epailearen aurrean kontatu beharko du berriro ere inkomunikatuta egon zen bost egunetan bizi izandakoa.

Horrek, bizi izandakoak utzitako ondorioen areagotze bat ekar dezake. Une honetan jazarpen eta indarkeria egoera batean egoteak eta tortura bera ahalbidetu zuen sistema judizialaren aurrean egoteak, deklarazioa egoera zaurgarrian egitera behartzen du. Norberak izan ditzaken prozesuak oztopatzeko aukerak nabarmen areagotu daitezkelarik. Era berean, behartuta egitea eta aukeratu ezin diren baldintzetan egitea, erabat baldintzatzailea izan daiteke.

Kontrol politiko eta patriarkalerako estrategia gisa torturatuak izan dira historikoki emakume* eta kide ezkertiar independentistak, eta biolentzia bikoitza jasaten dute euskal emakume* preso politikoek oraindik ere: emakume izateagatik eta disidentzia politikoagatik. Misoginiaren eragina oso nabarmena da sistema judizialean, polizia-etxeetan eta espetxe-sisteman. Eta, beraz, inkomunikazio-aldian oso presente egoten dira bi aldagai horiek tortura politiko sexualaren adierazpenetan: eraso sexualen mehatxuak, biluzik egindako galdeketak, ukituak, orientazio sexuala zalantzan jartzea, bortxaketak, tortura psikologikoak, isekak eta irainak edota militante politiko gisa jasandako gutxiespenak.

Eraso horiek patriarkatuaren oinarria den sexu bereizkeria indartzea dute helburu, eta emakumeen* osotasun fisikoan eta psikologikoan dute eragin zuzena. Emakumeen* aurkako indarkeria matxistaren beste adierazpen bat da tortura, urte luzez estatuak babestua. Horrek zerikusia du justiziaren zentzu patriarkalarekin eta agerian geratzen da justiziaren aplikazio osoan: prozesuetan, atxilotetean, kondenetan, etengabeko epaiketetan...

Tortura, emakumeak* partaidetza soziopolitikotik aldentzeko tresna gisa erabiltzen da, ezker independentismoan emakumeek* konpromiso politikoa hartu dute eta partaidetza hori espezifikoki eta bereziki zigortua izan da emakume* militanteen kasuan. Ez soilik iraganean, egun ere hala izaten jarraitzen du. Ikusi besterik ez dago pasa den astean Sandra Barrenetxearekin gertatutakoa; partaidetza politikoa ukatzen jarraitu nahi dute batzuek.

Torturapean egindako deklarazioak frogatzen gisa erabili izan dira makina bat epaiketatan eta horrek prozesuak luzatu ditu, gehienetan. Finean, hori ere bada tortura aplikatzeko beste modu bat. Iraganeko mamua izatetik urruti, gaur egun ere aski nabariak dira torturaren ondorioak Euskal Herrian, eta torturapean egindako deklarazioengatik jarraitzen dute oraindik espetxean hainbat euskal preso politikok.

Tortura politiko sexualak jasan dituzten emakumeak* eta hauen egoerak aintzat hartu behar dira bakearen eta justiziaren aldeko borrokan. Bada, ezinbestekoa da mugimendu feministak auzia mahaigaineratzea memoria historiko kolektibo baten aldeko bidean eta Euskal Herriaren eraikuntzan, gaurtik hasi eta etorkizunera begira. Memoria ariketa egitea orainari eta etorkizunari begiratzea ere badelako. Gaur, inoiz baino gehiago, konpromisoa hartu behar dugu egia, justiziaren eta erreparazioaren alde borrokan jarraitzeko. Askotarikoak dira torturak utzi eta uzten dizkigun ondorioak, eta horiei aurre egiteko eta osatze prozesuak ahalbideratzeko baliabide eta baldintzak eskuratu behar ditugu. Prozesu horiek politizatuz eta ekarpen eta afera politiko gisa ulertuz.

Iratxe, guk sinesten dizugu! Gaur hemen bildu gara hainbat emakume* torturatu, Euskal Herriko Bilgune Feminista eta Euskal Herriko Gazte Feministen Sarea eta aurrerantzean ere elkarlanean jarraituko dugu torturak jasan dituzten euskal emakume* militanteen erreparazio osoaren alde. Justizia, memoria, aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak.

Minak eta egiak aitortuz, feminismotik herria osatu!

Euskal Herriko Bilgune Feminista.

